



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BANDOA

Herritar guztioi jakinarazten dizuet 2020 urteko zerga eta tasetan kuotaren murrizketak edo bonifikazioak izateko, 2020ko otsailaren 1etik 29arte Larraulgo Udaletxean dagokion eskaera burutu beharko duzuela.

HOBARI EDO BONIFIKAZIOAK

1.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

a) Famili Ugarien hoberia

Kuota osoaren % 50 eko hoberia dago. Hoberia familia ugaria izaera duten subjektu pasiboek aplikatuko zaie, hoberia eskatu duten aurreko zergaldian familia ugariaren nortasuna badute eta dagokion zergaldian izaera hori mantenduko dutela egiaztatzen badute. Hoberia jasotzeko eskubidea galdu egingo da, familia unitateko kideren bat ohiko bizilekuaz gain beste ondasun higiezin baten jabe denean. Hoberiak urte jakin baterako bakarrik balio du.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Familia ugari izaera egiaztatzen duen agiria.
- Familia unitateko adin nagusiko kide guztien NAN fotokopia.
- Familia unitatearen elkarbizitza ziurtagiria.
- Ondasun higiezinaren azken erreziboa.

b) Eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinak. Kuota osoaren % 25eko hoberia edukiko dute.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Familia unitateko adin nagusiko kide guztien NAN fotokopia.
- Ondasun higiezinaren azken erreziboa.
- Instalazioa egiaztatzen duen agiria. (Lehen aldiz eskatzen bada)

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

a) Ibilgailu historikoen hoberia.

25 urteetako antzintasuna duten ibilgailuak. Kuota osoaren % 50 eko hoberia edukiko dute.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Titularraren NAN fotokopia.
- Ibilgailuaren zirkulazio baimena



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

b) Zerga-kuotaren %75eko hobaria, ibilgailuen motorraren ezaugarrien arabera eta horiek ingurugiroan duten eraginaren arabera. Hobari hau aplikatzeko aipaturiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen frogagiria aurkeztu beharko da.

c) b. ataleko hobaria %95ekoa izango da, motor elektrikoa duten ibilgailuen kasuan. Hobari hau aplikatzeko aipaturiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen frogagiria aurkeztu beharko da.

3.- URA ETA ZABORRA TASA

a) Bete beharreko baldintzak:

- Hobaria zein etxetarako eskatzen duten, horretaz gain ez dute beste ondasunik izango.
- Larraulgo Udalean inolako zorrik ez izatea.
- Elkarbizitza unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 150.000 euro.
- Elkarbizitza unitatearen kide bakar batek ere ezin du izan 13,99 zaldi fiskal edo gehiagoko potentzia duen trakzio mekanikoko ibilgailu baten jabe (arauetan zehazten diren salbuespenekin).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskatzailearen Nazio Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Elkarbizitza unitateko kide guztiek jasotako urteko irabazien egiaztagiria, hau da, soldata, pensio edo bestelakoei dagozkienak. Ez dira onartuko bankuek egindako ziurtagiriak.
- Estatuko Enplegu Institutuak (orain LANBIDE) egindako ziurtagiria, prestazio ekonomikorik jasotzen ari den agertzen dena.
- Ikasten eta diru-laguntzaren gai den etxebizitzan bizi diren familia kideek beharrezko dute ikasle direnak egiaztatzen duen agiria ekartzea, eta 18 urtetik gorakoak, horrez gain, Lanbideko egiaztagiri bat ere bai, langabezian daudela dioena.
- Eskatzailea etxebizitzaren jabea bada, aurreko urteko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (Kontribuzioa) ordaindu duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar du; eta maizterra bada, jabearen izena eta bi abizen eman behar ditu.
- Famili kideen Foru Haziendak emandako ondasun ziurtagiriak.
- Hobaria jasotzeko kontu korronte zenbakia (20 zenbaki).

Larraulen, 2020ko urtarrilaren 28an

